

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
HEZKUNTZA SAILA

2759

AGINDUA, 2019ko ekainaren 4koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita (2019-2020 ikasturtea).

Lurrari buruzko Gailurra egin zenetik (Rio de Janeiro, 1992), garapen jasangarria ingurumenaren aldetik lurraren etorkizunaren giltzatzat jotzen da. Heziketa ere funtsezko eragiletzat hartzen da, jendearen jarrera aldarazteko, ingurumenaren arazoei eraginkortasunez heltzeko eta, aldi berean, oraingo eta geroko belaunaldien beharrak egoki asetzeko.

Gailur horretan sinatu zen agiri nagusienetako bat Agenda 21 da. Horrela deritzo Nazio Batuek garapen jasangarriaren bidean aurrera egiteko gomendatzen duten ekintza-planari. Bada, 1994an, eta Agenda 21 horrek toki-erakundeentzat ezarritako ildoek jarraituz, Aalborgeko Karta sinatu zen, eta horrela hasi zen Europan kanpaina berezi bat, hain zuzen ere, euren lurraldeen garapen jasangarriaren alde egin nahi duten hiriena.

1998an promulgatutako Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra izan zen jasangarritasunaren helburuei erreferentzia zehatza egiten dien EAEko lehen dokumentu ofizialetako bat. «EAEn garapen-eredu jasangarria ezartzeko konpromiso sendoa hartu zuen, hain zuzen ere, gaur egungo beharrak asetzeko gai den garapena eta, aldi berean, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarriko ez duena».

Bestalde, EAEko Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategiak 2002-2020 (2002ko ekaina) garapen jasangarriaren bidean aurrera egiteko beharrezko baldintzatzat jotzen ditu, besteak beste, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa.

Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi Bileran (New York-2015), herrialde parte-hartzaileek garapen jasangarrirako asmo handiko agenda berri bat onartu zuten (Garapen Jasangarrirako Agenda 2030), zeinak helburuen artean garapen jasangarritako heziketa jasotzen baitu.

Euskadik bere gain hartu du Agenda 2030-an ezarritako erronka, Agenda Euskadi Basque Country 2030 finkatuz. Honek, Gobernuaren Programa eta garapen jasangarriarekin loturiko helburuen arteko lerrotatze eta ekarpen maila islatzen du.

Eskolako Agenda 21 programa ikastetxearen kalitaterako eta jasangarritasunerako hezkuntza-programa bat da. Hezkuntza-komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleriari aparteko protagonismoa emanaz eta udalerriaren garapen jasangarrian lagunduz. Gainera, Eskolako Agenda 21ek proposatzen duen hezkuntza-praktikak ikasleari lagunduko dio, batetik, inguruan dituen ingurumen-arazoak ezagutzen eta horietaz jabetzen, eta, bestetik, modu ardurasuan gizarte justuago eta jasangarriago baten alde egiten.

2010. urtean, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkadak jardunbide egokitze hartu zuen «Euskal Autonomia Erkidegoko Eskolako 21 Agenda» programa, jasangarritasuna euskal hezkuntza-sistema formalaren ardatzetako bat izatea lortzeagatik. Aitorpen

horrek asko lagundu zion ordura arte egindako bideari, eta egiteko dagoen biderako eragingarria izan zen.

Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (Rio de Janeiro, 2012), garapen jasangarrirako hezkuntza sustatzea eta garapen jasangarria modu aktiboagoan hezkuntzan sartzea ebatzi zen. Konferentzia horretan, presatu egin ziren hezkuntza-instituzioak, batetik, aintzat har zezaten jasangarritasuna kudeatzeko jardunbide egokia aurrera eraman zitekeela euren ikastetxe eta komunitateetan, betiere, ikasle, irakasle, tokiko kolaboratzaile eta abarren partaidetza aktiboarekin, eta, bestetik, garapen jasangarriari buruzko hezkuntza eman zezaten, irakasgaien barruko osagai gisa.

Eskolako Agenda 21 programa «Gaur ikasi, etorkizun jasangarria lortzeko» goiburua izan duen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko Munduko Biltzarrean (Aichi-Nagoya 2014) izan da. Bertan, «Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada» izenekoaren 25 esperientzia onenarikoaren artean dagoela adierazi da. Hamarkadaren amaierako mugari gisa egin den biltzarrak berretsi egin du garapen jasangarria gauzatu ahal izateko funtsezko baliabidea dela hezkuntza.

Gaur egun, EAEko IV. Ingurumeneko Esparru Programa 2020 izenekoak zehazten ditu ingurumenaren arloko EAEko politika eta jarduera. Era berean, 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia berria garatzen ari da. Horren jatorria aipatutako laugarren Ingurumeneko Esparru Programaren 5.4 jarduera-ildoan da; horren helburua da jasangarritasunerako hezkuntza eta kontzientziazioa sustatzea EAEko gizarte osoan.

Azaltzen diren erronketako bat da hezkuntza etorkizuneko belaunaldientzako konpromisoa izatea. Hezkuntza honela aurkezten da: «ingurumenerako beharrezkoak diren transformazio-aldaketak bideratzeko tresna boteretsuenetako bat da; horrela, oraingo belaunaldien konpromiso etikorako oinarriak ezarriko ditugu, etorkizuneko belaunaldientzat. Erronka hori gure gazteak ingurumenaren arloko erabakiak hartzerakoan benetan kontuan hartzean aurrera egitean datza; horri esker, belaunaldien arteko parte-hartze eta erantzunkidetasunaren maila altua ahalbidetzen da.»

Horregatik guztiagatik, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazio eremuan lehentasuneko helburua da eskola-esparruko esku-hartzea bultzatzea, ingurumen-gaiei buruzko informazioa eta gaikuntza emateko eta, horrela, garapen jasangarriraino heltzeko beharrezkoa den aldaketa eragiteko balioetan, jarreretan eta jokabideetan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, hezkuntza-sistema formalaren Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Planean oinarrituta, ezinbesteko jotzen du erakundeei dirulaguntzak ematea, ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntzako berriazko proiektuei ekiteko; izan ere, proiektu horiek, batetik, ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan nahiz geletako programazioan ingurumen-ikuspegi hori sendotuko dute, eta, bestetik, ikasleak edo hezkuntza-komunitateak garapen jasangarrian konprometitzeko gaituko dituzten kontzientzia, gaitasuna, ezagupena eta balioak garatzen lagunduko dute. Horrez gain, laguntza hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko martxoaren 14ko Aginduaren bidez onartu zen 2018-2020 ekitaldietarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan jasota dago, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan eskatzen den bezala, eta arau horretan jasotako edukiaren arabera.

Bestalde, Hezkuntza Sailak, jasangarritasunerako hezkuntza eskola-egitarauetan sartu beharra dagoela iritzita, egoki deritza ikastetxeek eta irakasleek ingurumen-arloan garatzen duten lana bultzatu eta aintzat hartzeari.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11eko 77/2017 Dekretuak, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak ematen diguten eskumena baliatuz, eta bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin, Dirulaguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntza eta laguntzei aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenekin, honako hau

EBAZTEN DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da, norgehiagokako prozeduraren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei 2019-2020 ikasturtean Eskolako Agenda 21 programa garatzeko eman beharreko dirulaguntzak arautzea.

2.– Ekintzen jarduketa eremua Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan izango da.

2. artikulua.– Hezkuntza-proiektua.

1.– Deialdi honi dagokionez, jasangarritasunerako hezkuntza-proiektu bakar bat prestatuko da. Ikastetxeetan egiten diren jarduera guztiak bilduko ditu proiektu horrek.

2.– Proiektuak ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan eta ikastetxeko urteko planaren barruan txertatua egon behar du.

3.– Oinarrizko Hezkuntza irakasten den ikastetxeetan (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), proiektuan, gutxienez, etapetako batek parte hartuko du, eta etapa horretako ikasle guztiek inplikaturik egon beharko dute.

4.– Gutxienez irakasle bat izendatuko da proiektuaren koordinatzaile. Koordinatzaile horrek ikastetxeko beste irakasle batzuk izango ditu laguntzaile (laguntza-taldea). Ikastetxeak, halaber, beharrezko baliabideak bermatuko dizkio koordinatzaileari.

a) EA21 proiektuen koordinatzaileei berariaz zuzendutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.

b) Proiektua koordinatzeko denbora eta bitarteko informatikoak eskura izateko.

c) Beste ikastetxe batzuekin batera, Ingurugelak bidezko jotzen dituen koordinazio-bileretan parte hartzeko.

5.– Ingurumen Batzordea eratuko da, eta horretan emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izango da. Estamentu guztiek osatuko dute (irakasle, ikasle, guraso, irakaskuntzaz kanpoko pertsonal eta abarrek). Batzorde horren eginkizun nagusia izango da proiektuaren jarraibideak zehatzea, eta horien jarraipena eta ebaluazioa egitea, hartutako konpromisoari eta egindako hobekuntza-proposamenei dagokienez.

Orekatutzat jotzen da sexueteriko bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkartza izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluari jarraikiz.

6.– Proiektuak gutxienez fase hauek izango ditu:

a) Ikastetxearen inguruan hautatutako gaiaren inguruko diagnostikoa, curriculumaren berrikuntza-proiektuetarako, kudeaketarako eta partaidetzarako, baita udalerrirako ere.

b) Ekintza-plana.

c) Aukeratutako adierazleen arabeko ebaluazioa.

7.– Era berean, proiektua garatu bitartean antolatzen diren udal-foroetan parte hartuko du ikastetxeak.

8.– Proiektuak garatzeko, ikastetxeek Ingurugelaren lankidetzara, prestakuntzara, aholkularitzara eta laguntzara teknikoak izango dute. Deialdi honen ondorioetarako, proiektu bakoitzari esleituko zaio, gutxienez, dagokion Ingurugelako aholkulari bat.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Xede horretarako, gehienez ere, zazpiehun eta berrogeita hamar mila (750.000) euro bideratuko dira, aurrekontu-aplikazio honen kargura: 19.0.1.05.12.0100.4.454.99.44210.014.V.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoek zein itunpeko pribatuek jaso ahal izango dituzte agindu honetan jasotzen diren laguntzak.

5. artikulua.– Baldintzak.

1.– Erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomiadunek antzeko beste dirulaguntza batzuk eman ondoren, haiek itzultzeko edo zehatzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da, erakunde onuradunei dirulaguntza eman eta ordaindu ahal izateko.

3.– Erakunde eskatzaileak ezin du egon dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren batean edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen batean, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoetan ere.

4.– Halaber, ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. apartatua jasotako gorabeheraren batean dauden entitateak. Gorabehera horiek gertatzen diren ala ez erabakitzeko, aintzat hartuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 4. zenbakitik 6.era bitartean ezarritakoa, eta gorabehera bakoitzerako ezarritako muga izango dute.

6. artikulua.– Erakunde eskatzailearen zenbait betekizun egiaztatzea.

1.– Parte hartzeko eskaerak berekin dakar baimena, organo kudeatzaileak ofizioz eta behar bestetan egiaztatu dezan dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela.

Erakunde eskatzaileak eskabidean berriaz adierazten badu ez duela ematen baimenik ofizioz egiaztatzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituen, organo eskudunek jaulkitako ziurtagiri administratibo positiboan bidez egiaztatu beharko du.

2.– Eskabideetan aukera izango da laguntzak eskatzen dituen erakundeak berariaz adieraz dezan baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak.

3.– Azaroaren 11ko 1/ 1997 Legegintzako Dekretuaren testu bateginaren aldaketa aplikatuz, honako betebeharrak egiaztatuko dira, eskabidean txertatuko den erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

a) Jakinaraztea ea eskatu den helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntzarik, laguntzarik, sarrerarik edo baliabiderik eta, kasu bada, ea eskuratu den.

b) Entitate eskatzailea ez egotea laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penal baten pean, edo ez izatea horretarako legezko debekurik.

c) Erakunde eskatzaileak adierazten du ikastetxeko klaustroa eta ordezkatzeko-organoa goren, biak ala biak jakinaren gainean daudela, ados daudela eta Eskolako Agenda 21 proiektuak zentroaren barne-antolamenduari eragin diezaioketen ondorioak onartzen dituztela.

d) Era berean, adieraztea eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak egiazkoak direla, eta dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

7. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartzen dira Eskolako Agenda 21 proiektuaren garapenerekin zuzenean lotutakoak.

2.– Ingurumen-hezkuntzako eskolaz kanpoko ikastegiak eta ingurumen-ondarea ezagutaraztera zuzendutako ibilbideak edo bisitak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egin beharko dira beti, dirulaguntza jaso ahal izateko.

8. artikulua.– Diruz lagundu ezin diren gastuak.

Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Eskolako Agenda 21 proiektuarekin zuzenean lotuta ez daudenak.

b) Irakasleek proiektuaren plangintzan eta garapenean erabiltzen dituzten orduen kostua, itunpeko ikastetxe pribatuetan.

c) Erosi behar izan diren material, lanabes, altzariak edo beste gastu batzuk, nahiz eta proiektua azkenean ez den garatu. Gastuen inguruan zalantzak suertatzen direnean, ikastetxeari azalpenak eskatuko zaizkio honen inguruan. Zalantzarik izanez gero, azalpenak eskatuko dira, balorazioa egiteko.

9. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

2.– Eskaeraren inprimakia sailaren webean eskuratu ahalko da, eta bitarteko beraren bidez aurkeztuko da: www.euskadi.eus/zerbitzuak/0038406

3.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete. Era berean, prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzekoak, 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4.– Agindu honetan jasotzen diren dirulaguntzak jaso nahi dituzten erakunde eskatzaileek eskabidea bete beharko dute (onlineako inprimakia), non datu hauek eskatuko diren:

- Zentroaren eta legezko ordezkariaren datuak.
- Jakinarazpenak egiteko eta komunikatzeko bideak eta hizkuntza.
- Proiektuaren datuak (proiektuaren izenburua, koordinatzailea, laguntza-taldea, parte-hartzaileak eta aurreikusitako jarduerak).
- Datu ekonomikoak (aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak).
- Erantzukizun-adierazpenak eta baimenak.

Era berean, beste administrazio publiko eta erakunde pribatu batzuetatik xede bererako laguntzak jasotzen badituzte, eskabidean adierazi beharko dute, diruz laguntzeko proiektuaren betekizunak egiaztatzeko, aipatutako dokumentazioarekin batera.

5.– Eskabide bat baino ez da onartuko ikastetxe bakoitzeko.

6.– Eskabidearekin batera, diruz laguntzea nahi duten proiektuaren aurrekontu osoa aurkeztu beharko dute ikastetxeek. Aurkezten den aurrekontua proposatzen diren jardueren eta jasangarritasunarekiko konpromisoaren neurrikoa izango da.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabidearen akatsak konpontzea.

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak eskabidean akatsen edo zehaztugabetasunen bat aurkitzen badu, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio, eta akatsa edo zehaztugabetasuna zuzentzeko hamar eguneko epea emango dio. Jakinarazpenean, adierazi egingo da erakundeak zuzenketa egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela, betiere aldez aurretik ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotakoari jarraituz.

11. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzeko organoa.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Sailburuordetzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan jasotako laguntzak kudeatzeko eginkizunak betetzea.

12. artikulua.– Balorazio-epaimahaia.

1.– Eskabideak balorazio-epaimahaiak aztertuko ditu. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

– Ingurumen Hezkuntza, Prestakuntza eta Sentsibilizazioaren arduradunak edo haren ordezkariak egingo ditu presidente-lanak.

– Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendariak Ingurumen Sailburuordetzako bi teknikari izendatuko ditu eta sailburuordetza horretan antzintasun handiena duenak egingo ditu idazkari-lanak.

2.– Balorazio-epaimahai horrek egingo duen balorazio-aktan, hau jasoko du: onartutako eskabideak, ukatutako eskabideak eta horren justifikazioa, eman beharreko gehieneko kopurua eta eskabide bakoitzarentzat proposatutako kopurua. Horrez gain, horren proposamena helaraziko dio Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendariari.

13. artikulua.– Dirulaguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko irizpideak.

1.– Programa garatzeko dirulaguntza eskatzen duten ikastetxe publiko eta itunpeko pribatu guztiek jasoko dute dirulaguntza, baldin eta agindu honetan jarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

2.– Dirulaguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du erakundeak eskatutakoa gainditu, ezta ondorengo gehieneko kopuruak ere:

– 5.000 euro, Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria indarrean duten ikastetxeentzat.

– 3.000 euro, gainerako ikastetxeentzat.

3.– Ezarritako gehiengoak kontuan harturik, irizpide hauekin egingo da dirulaguntzaren kalkulua:

a) Ikastetxe bakoitzak Eskolako Agenda 21 proiektua garatzeko 500 euroko gutxieneko kopurua jasoko du.

b) Horretaz gain, Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria indarrean duten ikastetxeei 1.000 euro gehiago esleituko zaie. Puntu hori ofizioz egiaztatuko da.

c) Aurreko bi apartatuetan adierazitako zenbatekoak deialdiaren guztizko zenbatekoari kendu ondoren lortzen den zenbatekoa proportzionalki banatuko da, jarraian adierazten den formulari jarraikiz lortutako puntuazioaren arabera:

– Ikastetxe bakoitzari 2019-2020 ikasturtean Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartuko duten 2 urtetik gorako ikasleen kopurua bezainbeste puntu emango zaizkio.

– Aurreko puntuazio horri batu egingo zaio ikastetxeak duen bekadun kopurua bi aldiz biderkatu ondoren lortzen den zenbatekoa, estatistika-dokumentu ofizialaren arabera, eskabide-epea amaitzen den unean.

– Ikastetxe bakoitzari emandako puntuazioa faktore konstante batez biderkatuko da, eta, faktore hori lortzeko, banatzeko gelditzen den guztizkoa zatituko da ikastetxe guztiei emandako puntuen baturarekin.

14. artikulua.– Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza batzuekin bateragarriak izango dira, betiere jasotako kopuru osoak jarduerarako finkatutako aurrekontuaren % 100 gainditzen ez badu. Bestela, gehieneko mugaraino gutxituko litzateke dirulaguntza.

15. artikulua.– Laguntzak emateko ebazpena.

1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendariak, horretarako bildutako balorazio-epaimahaiak egindako proposamena kontuan izanik, eta epaimahaiaren balorazio-aktaren bidez, gehienez ere sei hilabeteko epean ebatziko du dirulaguntza ematea ala ez, agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera. Ebazpen hau telematikoki jakinaraziko zaie zentroei, oro har ezagut dadin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aukera kendu gabe, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 45. artikuluetan ezarritakoari helduz. Ebazpenean, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak zehaztuko dira, baita dirulaguntzaren zenbatekoa ezarri ere; halaber, baztertzeko proposatzen diren proiektuak zein diren eta proposamen horren arrazoiak azalduko dira.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaierarik ematen; izan ere, ebazpen horren aurka, interesdunek gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Ingurumeneko sailburuordeari; hilabeteko epea izango dute horretarako, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek artikulua hauetan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikulua. Zehazki, betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman dela jakinarazteko argitalpen-datuen (14. artikulua) osteko hamar eguneko epean, ikastetxe esleipendunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, hura onartu dutela ulertuko da.

b) Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –laguntzen xedearen fiskalizazio funtzioak betez– eskatutako informazio guztia ematea.

c) Zabalkunde-karteletan eta -materialeetan, eta egiten den publizitate orotan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Hezkuntza Sailaren logotipoak jartzea.

d) Genero-ikuspegia sartzeari egiten diren dokumentu eta ekintzetan, eta hizkuntzaren eta irudiaren erabileran egon daitezkeen diskriminazio-elementuak ekiditea.

e) Hezkuntza Sailari eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari lagatzea –doan eta ez modu eskusiboan– aurkeztutako dokumentazioan jasotako informazio teknikoa eta pedagogikoa erabiltzeko eskubidea, dokumentazio hori Hezkuntza Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren informazio-sistematan erabili eta txertatzeko, eta edozein baliabide eta formatu bibliografiko, ikus-entzunezko eta informatikotan, nahiz teknikaren erabilerak ahalbidetzen dituen bestelakoetan hedatzeko eta/edo argitaratzeko. Edonola ere, jabetza intelektualaren eskubideak errespetatuko dira.

f) Ikastetxeak, bere antolamendu-autonomiaren barruan, bermatu egingo du proiektuaren koordinatzailearen eta proiektuaren laguntza-taldearen ordutegiak egokituko direla, proiektuan dituzten egitekoekin bateratu ahal izateko. Ikastetxe publikoetan, beti beteko dira Hezkuntza Sailak irakaskuntzako etapa eta modalitate guztietarako ikasturte-hasieran ematen dituen zirkularretan jasotako arauak.

17. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Ikastetxe onuradunek 2020ko ekainaren 15a baino lehenago justifikatu beharko dute jasotako dirulaguntza, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> web-helbidearen bitartez.

Justifikazio-kontu sinplifikatua deritzon administrazio-prozeduraren bidez egingo da justifikazioa, eta, horretarako, sailaren webean (www.euskadi.eus/zerbitzuak/0038406) eskuragarri dagoen dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Dirulaguntza eman zenean ezarritako baldintzak bete direla erakusten duen memoria. Memoria egingo da Ingurugelak errazturiko eredia betez. Ingurugelak proposatutako ereduaren arabera egingo da memoria, eta hauek hartuko ditu kontuan:

– Eskolako Agenda 21 ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan eta ikastetxeko urteko planaren barruan txertatzea.

– Ingurumen-batzordearen osaera eta proiektua aurrera eramateko bestelako antolamendu-neurriak.

– Diagnostikoaren ondorioak, proiektuaren funtsezko hiru ardatzetan oinarrituta: partaidetza, kudeaketa eta curriculum-berrikuntza.

– Hobetzeko helburuak, ebaluazio-adierazleak eta ekintza-planaren deskribapena.

– Ekintza-plana abian jartzea.

– Udal-foretan parte hartzea.

– Proiektua hautatutako adierazleen bitartez ebaluatzea.

b) «2019-2020ko Kontu Justifikatzailea» izeneko formularioak eskola parte-hartzaileari buruzko datuak, proiektuari buruzko informazioa eta ikasleen nahiz irakasleen parte-hartzeari buruzko datuak jasotzen ditu. Gehigarri modura, proiektuaren behin betiko diru-sarreraren eta gastuen zerrenda sailkatua jasoko da (faktura-zenbakia, igortzailea, kontzeptua, data eta zenbatekoa adierazi beharko dira).

Formulario hori bera erabilia, halaber jakinaraziko dira zer aldaketa egin zaizkion proiektuari, aipatuz aurrekontuan jasotako jarduera, horrek izandako aldaketak eta horien arrazoiak.

2.– Dirulaguntza ematen duen organoak, % 10eko ausazko laginketaren bidez, egokitze jotako egiaztagiri oro egiaztatuko du, dirulaguntza egoki erabili dela ondorioztatzeko adinako ebidentzia bildu arte. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.

3.– Memoriaren eta sortutako materialen kopia bana bidaliko zaio, halaber, kasuan kasuko Ingurugelari.

4.– Justifikaziorako epea amaitu bada, eta erakundeak ez baditu aurkeztu kasuan kasuko agiriak, hogei eguneko epea du agiriok aurkezteko, eta jakinaraziko zaio ezen, epe hori amaituta aurkezten ez baditu, justifikatzeko beharra ez duela bete ulertuko dela, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan ezarritako ondorioak izango dituela, eta oinarri arautzaile hauetako 21. artikuluko baldintzetan.

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Emandako dirulaguntzaren ordainketa bi fase hauetan egingo da:

– Agindu honen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, dirulaguntza onartu ostean, emandako kopuruaren % 80 ordainduko da.

– Gainerako % 20a, berriz, justifikazio-izapidea behar den bezala bete ondoren ordainduko da.

19. artikulua.– Hezkuntza berriztatzeko proiektuan irakasleek izandako partaidetzaren ziurtagiria.

1.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ofizioz ziurtatuko du irakasle koordinatzaileek eta laguntza-taldeak Eskolako Agenda 21 proiektuetan izandako partaidetza. Proiektu horiek balorazio positiboa jaso behar dute, eta haietan gutxienez 30 ordu eman direla ziurtatu beharko da.

2.– Ziurtapena ikastetxeko zuzendaritzak bermatutako datuetan oinarrituko da. Datu horiek agindu honen 17. artikuluan aipatzen den justifikazio-izapidetako inprimakian jasoko dira. Inprimaki horretan, proiektuaren irakasle koordinatzailea eta laguntza-taldeko kideak jasoko dira (Jarduketa Memorian).

3.– Pertsona bati, ikasturte berean, ezin izango zaio 90 ordu baino gehiago egiaztatu, honako kontzeptu hauetan: prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza-berrikuntzako proiektu edo ekintzak, EA21eko programak edo osasunerako sustapen- eta hezkuntza-programak.

20. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egiten badira ezertan, baina, hori bai, laguntzen xedea bete egin bada hala ere, edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutik bestelako dirulaguntza edo laguntzarik jaso bada, baliteke dirulaguntzak emateko ebazpena aldaraztea horrek. Ondorio horietarako, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak dagokion likidazio-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren kopurua doitzeko, eta, hala dagokionean, lortutako gehiegizko zenbatekoa itzultzeko.

21. artikulua.– Emandako datuen kudeaketa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren arabera eta Europako Parlamentuaren 2016/679 Erregelamendu Orokorren arabera (datuak babesteari buruzkoa da), erakunde eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da dirulaguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditente ere kudeatzea. Fitxategi honen arduraduna Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurka egiteko eskubideaz sail bereko Zerbitzu Zuzendaritzan baliatu ahal izango da. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

22. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

Onuradunak jasotako dirulaguntza eskatu eta eman zeneko xederako erabiltzen ez badu, dirulaguntza eskatu zeneko jarduera egiten ez badu, eskatu zeneko helburu zehatzetarako izan dela justifikatzen ez badu edo, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan, agindu honetan edo emakida-erabakian ezarritako betekizunak betetzen ez baditu, arau horretan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta haiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan jasotako xedapenak ezarriko dira, eta, ondorioz, itzuli egin beharko ditu bai emandako eta jasotako diru-kopuruak, edota haien zati bati, bai kopuruoi legez ezar dakizkiekeen interesak.

23. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari edota Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko

2019ko ekainaren 7a, ostirala

auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan berariaz ezarrita ez dagoen guztian, honako hauetan jasotako xedapenak izango dira aplikagarriak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 4a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.